



3. MINTEGIKO LANA

2008-2009 IKASTURTEA

AITZIBER SORIANO LABRADOR

SEKUENTZIA DIDAKTIKOA

Nik aukeratu dudan Sekuentzia Didaktikoa, Lenguaiako ikasgaien erabiltzen ari diren txostentxo bat da, "EL ROBOT" izenekoak. Txostentxoak esan dut, ikasleek liburuak izan beharrean txosten bat dutilako, hau txuri beltzean dago eta argazkiak apenas ikusten dira.



SEKUENTZIA DIDAKTIKOAREN OSAGIAK:

Helburuak, hizkuntza ikastea izango zen. Hau da Gaztelera kasu honetan. Helburu nagusia hau izango zen baina badaude beste helburu batzuk ere. Ortografia lantzea, irakurketan trebatzea,... Honek guztiak bilduz hizkuntza bat ikasteko aukera ematen du.

Edukiak honako hauek dira:

- Irakurketa
- Ortografia arauak
- Testuen ulermena
- Idazkera
- Lexikoa edo hiztegia
- Hiztegia
- Gramatika

Ardatz metodologikoari buruz hitz egiterako orduan, esan beharra dago, ikaste xedeak lortzeko erabiltzen den prozesua berdina dela, hau da, liburuak jarraitzen dute beti eta liburuak esaten dutena egiten dute. Bakarkako lana bultzatzen du irakasleak eta zuzenketa garaian talde handian egiten dute beti.

Jarduera ez dute ikasleen aurrezagutzak identifikatzen eta ez dela ikaste esanguratsua esango nuke.

Ikasleen antolaketari dagokionez, gelan U antzerako baten exerita daude eta beste batzuk hirunaka, baiana Sekuentzia didaktiko hau egiteko normalean Lenguaiako orduan egiten dute eta antolaketa beti berdina izaten da, bakarka aritzen dira ariketak egiten eta zuzentzerako orduan talde handian. Baina normalean bakarka aritzen direla esango nuke eta liburuak esaten duten dena jarraituz.

3. mintegia

Denboralizazioan, aurretik esan bezala, Lenguaiako ordua erabiltzen dute sekuentzia didaktiko hau egiteko. Denbora mugatua izaten da, astean 3 ordu izaten dute Lenguai eta horretara mugatzen dira bakarrik.

Baliabideei dakogionez, ez dituzte erabiltzen, aurretik esan duan bezala liburuak esaten duenera bakarrik mugatzen dira. Irakasleak gelan ematen ditu sekuentzia didaktiko honetako ariketa guztiak. Eta ez da liburuak esaten dutenetik at joaten. Ez dute ordenagailurik erabiltzen ezta proiektoreak ere, txostenari bakarrik ematen diote garrantzia.

Ebaluazioa irakasleak egiten du. Hau sekuentziaren bukaeran egiten du kontrol baten bidez. Ez du hasierako ebaluazio egiten, ezta prozesuan zehar ere. Kontrolaren emaitzarekin bakarrik gelditzen dela esango nuke.

JARDUEREN ANTOLAKETA

Liburuaren hasieran gida bezelako bat dago. Urte hasieran, landuko dituzten gai guztiak agertzen dira eta irakasleak hiruhilabetero egingo dituzten gaiak aukeratzen ditu, hauetako bat "EL ROBOT" da.

Sekuentzia Didaktiko hau lau zatitan banatzen da; **Sarrera fase** bat du, hau ikasleen aurrezagutzetatik abiatzen dena. Bigarren atala, gaiari buruzko **irakurketa** bat eta honi buruz galdera batzuk daude, ikasleak gaiari buruz zer dakiten eta zer espero duten ikusteko. Hirugarren zatia edo fasea, **gaiaren garapena** da, bertan ikasleek gatzelerari buruz dituzten ezagutzak hobetzeko balio du. Azkenik, "El desván" eta "He aprendido" atalak daude, **ekoizpen fase** honetan jolasak daude, baina sekuentzian ikasitakoari errepassoa ematen dio.

Beraz esan dezakegu, Hausnarketa fase bat bakarrik falta zaiola.

ARLOEN ARTEKO ERLAZIOA

Arloen arteko erlazioa oso urria dela esango nuke, arlo guztietan liburuak jarraitzen dute eta apenas egiten dituzte arlo bakoitzean besteekin konparaketa. Gatzelerako gai honetan, batzuetan Euskararen ikasitakoari erreferentzia txiki bat egiten dio irakasleak baina ikasleek ez dakite gauza horiek aldaratzen eta ez diote arreta askorik jartzen.

JARDUERAK SEKUENTZIA DIDAKTIKO BARRUAN ALA ISOLATURIK

Jarduerak Sekuentzia Didaktikotik isolaturik daude. Ariketak ez dute bata bestearekin zerikusirik, Sekuentzia Didaktikoa Robotarekin hasten da, gero eguzki sistema sartzen du, baita animaliak ere. Multidisziplinarioa da esango nuke, gaiak independenteak direlako. Ez ditu ikasleen interesak kontutan hartzen eta materiala ardatz bihurtzen da.

IRAKASLE IZANGO BANINTZ...

Ni irakasle izango banintz, gauza asko aldatuko nituzke, dena ez esatearen. Lehengo helburuak finkatuko nituzke. Helburua, ikasleengandik espero dugun emaitza izan behar da beraz, helburu horiek lortzeko izaten ahaleginduko nintzen. Helburuak jarri ondoren edukiak planteatuko nituzke, hauek ikaste esanguratsua bultzatzen dutelarik.

Sekuentzia Didaktiko honetatik gauzak aldatu beharrez, ikasleen motibazioa eta interesak kontutan hartuz landuko nituzke eta ahal den neurrian bete ikasgaietara loturak eginez.

Lehen esan bezala, Sekuentzia didaktikoa haurnera fase bat falta zaio, beraz nik, haurnerarako denbora emango nuke, ikasleek beraien autonomia bultzatzeko beraien esku utziko nuen. Ebaluazioa ere aldatu egingo nuke. Bukarera bakarrik ebaluatu beharrez aurretik dakitenetik bukarera ikasi dutena ebaluatu beharko zen. Hau da ebaluaketa jarraia.